

2018/12/04an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO  
BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL  
PLENO DE LA CORPORACIÓN.  
Día 04/12/2108.

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Maite Zubia Atxaga  
Aitor Zubizarreta Alegría  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

#### Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko abenduaren 4a, goizeko zortziak eta laurdenetan, Udaletxeke Osoko Bilkura aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Maite Uribe, Edorta Barandiaran, Aintzane Agiriano, Maider Otamendi eta Rafael Bernal.

En Eskoriatza, siendo las 8:15 horas del día 4 de diciembre, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegría, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Maite Uribe, Edorta Barandiaran, Aintzane Agiriano, Maider Otamendi y Rafael Bernal.

**1.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

Eskoriatzako udalerriko berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko, horien mantentze-lanak egin eta garbitzeko zerbitzua prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeko espedientea onartu zuen Udalbatzarrak 2018ko uztailaren 24an egindako bilkuran. Kontratuari kalkulaturako balioa Europako atalasearen berdina edo handiagoa da, 113.032,06 euro urtekoa, balio erantsiaren zergari dagozkion 23.736,73 euro gehitu beharko zaizkionak. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 4 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

Eskaintzak aurkezteko ezarritako epean ondorengo enpresek aurkeztu zituzten beraienak:

FERROVIAL SERVICIOS S.A.  
ELAI SERBITZUAK S.L.

Eskaintzen balorazioaren emaitza honako hau izan da:

IRIZPIDEAK		ELAI SERBITZUAK S.L.	FERROVIAL SERVICIOS S.A.
Lanaren antolaketa (15 puntura arte)	Programazioa  (10 puntura arte)	8	4
	Kalitateen kontrola (5 puntura arte)	4	3
Makineria	Egokitasuna  (10 puntura arte)	10	9
	Isurketak	1	3

	(3 puntura arte)		
	Olio eta lubrifikatzaileak  (2 puntura arte)	1	2
Eskaintza ekonomikoa  (51 puntura arte)  (lehiaketa prezioa: 113.032,06 euro)		109.494,16 euro  47,6 puntu	102.192,29 euro  51 puntu
ESKAINZA TEKNIKOA  (19 puntura arte)	Izurriteen plan integrala  Produktu biozidak  Ongarriak  Ontziak  Lur hobetzaileak  Landare berriak hornitzeko konpromisoa	19 puntu	19 puntu

Lortutako puntuazioaren arabera, eskaintzak puntu gehien lortu dituenetik puntu gutxien lortu dituenera sailkatu dira:

*ENPRESA*

*PUNTUAK*

- **FERROVIAL SERVICIOS S.A. .... 91,00**

- **ELAI SERBITZUAK S.L.**

**90,60**

Kontratazio Mahaiak 2018ko azaroaren 15ean egindako proposamena ikusi da.

FERROVIAL SERVICIOS S.L. enpresak eskatu zitzaion dokumentazioa aurkeztu eta 5.109,61 euroko behin betiko bermea jarri du. Horiek horrela, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresari esleitzea ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko kontratua 102.192,29 eurotan urteko gehi BEZari dagozkion 21.460,38 eurotan.

**Bigarrena.-** Enpresa esleipendunak berak adierazitakoaren arabera, kontrata honetako langileak estatu mailako lorezaintza-hitzarmenaren pean egongo dira.

**Hirugarrena.-** Kontratazio honen esleipena eta formalizazioa kontratatzailearen profilean eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean -EBAOn- argitaratzea.

**Laugarrena.-** 103.043,90 euroko gastua onartzea 2019ko aurrekontuko dagokion aurrekontu aplikazioaren kargura.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 8:25ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

**1.-ADJUDICACION DEL CONTRATO DE PRESTACION DEL SERVICIO DE CONSERVACIÓN, MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE LAS ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES Y ARBOLADO DE PASEOS EXISTENTES EN ESKORIATZA**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 24 de julio de 2018 adoptó el acuerdo de aprobar el expediente de contratación, mediante procedimiento abierto con varios criterios de adjudicación y con valor estimado igual o superior al umbral europeo, de prestación del servicio de conservación, mantenimiento y limpieza de las zonas verdes, parques, jardines y arbolado de paseos existentes en Eskoriatza, por importe de 113.032,06 euros al año, a los que se deberá repercutir 23.736,73 euros correspondientes al Impuesto sobre el Valor añadido y una duración de 1 año, que podrá ser prorrogado por otros 4 años más sin que la duración total del mismo pueda exceder de 5 años

Dentro del plazo establecido al efecto, presentaron oferta las siguientes empresas:

FERROVIAL SERVICIOS S.A.  
ELAI SERBITZUAK S.L.

El resultado de la valoración de las ofertas ha sido el siguiente:

<b>CRITERIO</b>		<b>ELAI SERBITZUAK S.L.</b>	<b>FERROVIAL SERVICIOS S.A.</b>
Organización trabajo (hasta 15 puntos)	Programación (hasta 10 puntos)	8	4
	Control de calidades (hasta 5 puntos)	4	3
Maquinaria	Idoneidad (hasta 10 puntos)	10	9

	Emisiones (hasta 3 puntos)	1	3
	Aceites y lubricantes (hasta 2 puntos)	1	2
Oferta económica (hasta 51 puntos)  ( precio licitación 113.032,06 euros)		109.494,16 euros  47,6 puntos	102.192,29 euros  51 puntos
OFERTA TECNICA (Hasta 19 puntos)	Plan Integral de Plagas  Productos Biocidas  Fertilizantes  Envases  Enmiendas al suelo  Compromiso suministro nuevas plantas	19 puntos	19 puntos

En función de la puntuación obtenida, las ofertas quedan clasificadas en orden decreciente de la siguiente manera:

<i>EMPRESA</i> .....	<i>PUNTOS</i>
• <b>FERROVIAL SERVICIOS S.A.</b> .....	<b>91,00</b>

- **ELAI SERBITZUAK S.L.**

**90,60**

Vista la propuesta de la Mesa de Contratación de fecha 15 de noviembre de 2018 y

Visto que la empresa FERROVIAL SERVICIOS S.L. ha procedido a la entrega de la documentación a la que fue requerida y al depósito de una fianza definitiva por importe de 5.109,61 euros, el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes ACUERDA:

**Primero:** Adjudicar a FERROVIAL SERVICIOS S.A. el contrato de PRESTACION DEL SERVICIO DE CONSERVACION, MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE LA ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES Y ARBOLADO DE PASEOS EXISTENTES EN ESKORIATZA, por un precio de 102.192,29 euros anuales más 21.460,38 euros correspondientes al IVA.

**Segundo:** Conforme a lo señalado por la propia empresa adjudicataria, las personas trabajadoras destinada a la ejecución de este contrato estarán sujetas al Convenio Estatal de Jardinería.

**Tercero:** Publicar la adjudicación y formalización de la presente contratación en el Perfil del Contratante y en el Diario Oficial de la Unión Europea -DOUE

**Cuarto:** Aprobar el gasto de 103.043,90 euros con cargo a la aplicación presupuestaria correspondiente del Presupuesto del ejercicio 2019.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a 8:25 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**